

Itsasoaren Museo Probintziala

1969ko urrian, Lugoko Aldundiak, San Cibrao-n (Cervo) Itsasoaren Museo Probintziala sortzea erabaki zuen, Francisco Rivera Casás jaunaren bilduma oinarri hartuz. Bera irakasle jardun zen Lugoko itsas aldeko herri honetan 1934tik 1982ra, jarduera hori itsas-arrantzari buruzko irakaskuntzekin tartekatuz. 1994tik, “Asociación de Veciños Cruz da Venta” (“Cruz da Venta bizilagun elkarte”) museoaz arduratu zen, 2004an Lugoko Aldundiak berriz ere kudeaketa bere gain hartu zuen arte, Museo Sarearen bidez.

Itsasoaren Museo Probintziala Galizian gai horri buruzko zaharrenetakoa da. 1931n Eskola Unitarioa izateko altxatako eraikinean kokatuta dago. Obra hori José M^a Fernández eta Manuela Goñi Maiste senar-emazteen dohaintzari esker gauzatu zen.

Gaur egun, San Cibrao-ko Itsasoaren Museo Probintzialak lau atal ditu oinarrian eta hasieratik Lugoko kostaldearen historia eta itsas bizitza islatu nahi izan ditu, bertako aberastasun biologiko eta etnografikoa erakutsiz.

Lehenengoan, eskolari oroigarria eta omenaldia eskaintzen dio, gaur egun museoa den eraikina erabilera horretarako sortu baitzen. Ondoko espazioan, lurrunezko motore batek museoaren bihotza sinbolizatzen du. Bertan bisitariek herriaren eta eskualdearen itsas giroko lehenalditik ibilbidea egin dezakete lekukotasun grafiko batzuen bidez, memoria historikoan barrena egindako ibilbidea, bizilagunek eskainitako argazki bilduma garrantzitsu baten bitartez.

Bigarrenak San Cibrao-n erriberako zurgintza multzo du gidari, bertako ontzioletatik ateratako tipologia ohikoenekin batera, itsasontzi eredu batzuk erakusten direlarik. Eskalan egindako itsasontziak dira, herri honetako historian garrantzi berezia izan zutenak, besteak beste Paca Gómez, el Industrial edo Sargadelos-eko goleta, besteak beste **(1 eta 2 Atalak)**. San Cibraon itsasontzien eraikuntza tradizio handia dago, XIV. mendetik. Herri honetan itsasontzien eraikuntzan izandako behin betiko bultzada Sargadelos-eko industria gunearen sorkuntzatik etorri zen, XVIII. mende amaieran. Merkataritzaren hazkundearen ondorioz, kabotaje-ontzien eskaria ere handitu egin zen, fabrika horrek behar zituen manufakturak eta lehengaiak garraiatzeko. Horrela, herriko ontzioletan ibilbide luzeetarako garraio handiko belaontziak egiten hasi ziren, batez ere goletak eta bergantinak (eta bien aldaera mistoak) eta baita karga gaitasun txikiagoko ontziak ere, hala nola, katxermarineak, falutxoak edo patatxak, joan-etorri txikiagoetarako. Arrantzarako, arraun-ontzi handiak egiten ziren, “trainonak” edo txalupak adibidez, baleak harrapatzeko zein sardinak arrantzatzeko erabiltzen zirenak.

Edukiera handiagoko karga-ontziak eraikitzekeo burdina sartu izana, zurgindegien beherakadarekin batera etorri zen. Izan ere, horien lan jardunak arrantza-ontzi txikiak eta konponketa-lan txikiak egitera murriztu zen. XX. mendeko 60ko hamarkadan urrezko garai berria izan zuten, hegaluzearen arrantza zabaltzearekin batera.

“El arte de marear: buscando el norte,” (“Itsasontziak zuzentzeko artea: iparraren bila”) izenburua daraman atalean, nabigazioaren eboluzioa ulertzeko eta horien lorpenen neurria ulertzeko itsas tresnak jaso ziren eta baita itsasontzietako farol eta argi posizionamenduak ere. Horien funtzioa itsasontziaren kokapena markatzea eta egiten dituen maniobren berri ematea da. Itsasazpiko erreskateetatik etorritako piezentzat toki berezia erreserbatu zen. Adibidez Magdalena fragata eta Palomo bergantina hondoratu zireneko arrastoak. Azken hori Viveiro-ko errekan gertatu zen 1810ean.

Hirugarren aretoaren erakusgai nagusiak itsas-ofizioak (arrain saltzaileak, sareak pasaratzen aritzen zirenak, kordelariak, etab.) eta arrantzako aparailuak eta tresneriak dira (horien artean deigarriak dira osorik gordetzen den arrantzarako jantzi bat, modu tradizionalan egindakoa, tindatutako linuarekin, eta baita “**trainoi**” edo **bale arrantzako txalupa** bat ere, 3 m-ko luzera duena, eta bi kandlekin prestatua). Itsas faunaren erakusgarriak dituen bilduma bat ere badago. Horien artean malakologia bilduma nabarmentzen da (museoko funtsen guztirako %70. Bertan bost molusku talde nagusietan taldekatutako pieza ugari ikus daitezke) eta baita itsas animalien eskeleto osoak edo zatiak (tiburoiaren baraiak, ezpata arrainen ezpatak, delfinen eskeletoak, etab.) diseatutako animaliak (dordokak), koralak, fosilak, algak, etab.

Laugarren aretoan, ehizaren historia eta baleen hezur arrastoak dira protagonistak. San Cibrao-ko hondartzetan jaso ziren, batez ere Cubelas-koan. Bertan ibiltzen baitziren ehizatutako zetazeoak XVI eta XVIII. mendeetan. Azken ehunurtekoaren hasieran, balearen ehizak behera egin zuen gure kostaldeetan. Baina gero 1965ean jardura horrek berriz ere protagonismoa hartu zuen herrian, Massó kontserba enpresak bere enpresetako bat jarri baitzuen Portiño de Morás-en (Xove). Enpresa 1976 itxi zen behin betiko, baleen ehiza komertzialaren nazioarteko moratoria adierazpena baino hamar urte lehenago.

Itsasoaren Museo Probintzialaren koodenatuak (datum ETRS89)

UTM: 29 625558 4839244

Geografikoak: 43°41'44,15"N 7°26'30,78W

Hamarrekoak: 43.6955969455 -7.4418833614

Neguko ordutegia (urritik maiatzera)

Asteartetik larunbatera:

Goizak 11,00etatik 14,00etara

Arratsaldeak 16,00etatik 19,00etara

Igande eta jai egunak:

Goizak 11,00etatik 14,00etara
Astelehenak itxita

Udako ordutegia (ekainetik irailera)

Asteartetik larunbatera:

Goizak 11,00etatik 14,00etara

Arratsaldeak 17,00etatik 20,00etara

Igande eta jai egunak:

Goizak 11,00etatik 14,00etara

Astelehena itxita

Museoa itxita egongo da urtarrilaren 1ean (Urte Berri eguna), maiatzaren 22an (Santa Rita), abenduaren 24, 25, 31n eta bertako bi jai egunetan, urtero Cervo-ko Udalak zein izango diren finkatuko dituenak.

Sarrera doan

Harremanetarako

Itsasoaren Museo Probintziala

Avenida da Mariña z/g

San Cibrao

27890 Cervo (Lugo)

Tfnoa.: 982 594 572 / museodomar@museolugo.org

www.museolugo.org